

Parte hartzeko kontzientziak pizten

Emakumeen parte-hartze politikoa, soziala eta kulturala bultzatzea helburu hartuta, Jabetze Eskolak antolatutako dituzte hainbat udalerritan

AINHOA SARASOLA

Emakumeak norbere esku-bideez eta ahalmenez kontzientzia hartzea, horiek aldarrikatu ez ezik baliatu ere egin ahal izateko. Horixe da jabetze kontzeptuaren esanahia, Irantzu Jauregi Hernaniko berdintasun teknikariaren hitzetan. Lehen aldiz Jabetze Eskolak antolatutako udalerrri gipuzkoarreen, Irunen, Arrasaten eta Eibarren bezala, elkarlanean. «Guretzat jabetzea emakumea bere lekuaz, ahalmenez eta eskubideez jakitun izatea da, hori aldarrikatzea eta hala jokatzea», dio Jauregik. Eta horixe landuko dute eskoletan, prestakuntza abiapuntu ez ezik oinarri ere izango da. Helburu nagusia argi dute: emakumeen parte-hartze sozial, politikoa eta kulturala sustatzea.

«Guk diogunean emakume bat jabetu egin dela da bere lekua hartzen duela; ez soilik gaitasuna eta prestakuntza badituela, baizik eta horiek ere baliatzen dituela, kontzientzia hori duela eta hala jokatzen duela, edozein esparrutan». Kontzientzia hori lantzeko, ikastaroak antolatutako dituzte hainbat udalerritako berdintasun teknikariek.

Jabetzea lantzearen bidea hautatu dute, beraz, herri mailako erabaki politikoa, soziala edo kulturala-



Lagun ugari bildu ziren iaz Basauriko Jabetze Eskolen barruan antolatutako ikastaroetan. BERRIA

tan emakumeen parte-hartzea sustatzeko. Izan ere, Jauregiren hitzetan, «historikoki emakumeak baztertuagoak egon gara hainbat eremutan, botere guneetan bereziki». Hala, «erabakiak hartzen diren tokietan» emakumeek parte hartzearen beharra nabarmendu du, «erabakiguneetan erabakitzen denak denoi eragiten baitigu, emakumeoi barne».

Prestakuntzaren bidez norbere jabetzea lantzen bada ere, azken xedea ez da landutakoa banako mailan geratzea, parte-hartze soziala areagotzeko balio izatea baizik. Emakumeak gerturatzeko eta eztabaidagune gisa ere, ikastaroak antolatzearena «tresna polita» izan daitekeela uste du Jauregik.

Iaz hainbat ikastaro antolatutako zituzten Hernanin, baina ez Jabetze Eskola gisa. Guztietan izaniko parte-hartzearekin pozik daude antolatzaileak. Aurten, berriz, lau ikastaro eskainiko dituzte, urrian hasi

eta abendura bitarte iraungo dutenak: *Komunikazioa eta jendaurrean hitz egiteko teknikak*; *Gure errotismoa tratu onaren bidean*; *Munduko emakumeen literatura*; eta *Literatura eta emakumeak*, azken hori euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Beste hiru udalerrri gipuzkoarretan ere izango dira eskolak. Irunen, esaterako, *El poder de lo femenino* (Femeninoaren boterea) ikastaroa eskainiko dute urritik abendura bitarte. Antolatzaileak pozik daude izan duen harrerarekin, 20 lagunentzat tokia izanik, dagoeneko 16 lagun joan baitira izena ematera lehen hiru egunetan. Iragan maiatzean eta ekainean eginiko autodefentsa ikastarok ere izan zuen arrakasta, 45 inguru emakume bildu baitzituen.

Eibarren ikastaro bera eskainiko dute, urritik abendura; baita munduko emakumeen literatura-rena ere, azken hori ekaina arte. Arrasaten, berriz, hiru ikastaro

antolatutako dituzte, urrian hasita guztiak: maiatza arte izango da munduko emakumeen literatura-ri buruzkoa; eta abendura bitarte, berriz, *Blogak eta komunikazio digitala* eta *Nola hitz egin jendaurrean* izenburupekoak.

BIZKAITARRAK AITZINDARI. Gipuzkoan Jabetze Eskolak antolatzen dituzten lehen urtea bada ere, Bizkaiko beste hainbat herritan lauzpabost urteko bidea egina dute dagoeneko. Basauri da horietako bat. Bizkaian aitzindari izan zen Jabetze

Emakumeen parte-hartze sozial, politikoa eta kulturala sustatzea da eskolen helburu nagusia

Basauri, Ondarroa, Getxo eta Ermuko eskolak eredu hartuta, sarea osatu dute lau udalerrri gipuzkoarrek

Eskolak antolatzen. Urtebetara, bide berari ekin zioten Ermuak, Getxok eta Ondarroak ere, eta sarea osatu zuten, gipuzkoarrek aurre egin bezala. Eskolez gain, bestelako ekimenak dituzte abian egun Basaurin, eskoletako esperientzia abiapuntu hartuta hasitakoak. Saharako emakumeekin harremanetan dira, esaterako. Izan ere, Anabel Sanz udaleko berdintasun teknikariaren hitzetan, eskolen helburua ere bada «konpromisoa hartzeko bide bat izatea». Hori guztia lortuko da emakumeak elkarren artean ezagutzuz, beste errealitate batzuk aztertuz, egitasmo beraren parte sentituz...

Hasiko den ikasturterako, esaterako, urritik abendura bitartean *Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko erresistentzia motak munduan ikastarora eskainiko dute*, baina baita beste egunetan parte hartzeko moduko beste hainbat hitzaldi eta ekimen ere.

EDURNE MENDIZABAL Berdintasun teknikaria

«Jendaurrean hitz egitea beharrezkoa da eremu publikoan parte hartzeko»

A. SARASOLA

Andoain

Lehenago Algortan eta Ondarroan (Bizkaia) egin bezala, *Komunikazioa eta jendaurrean hitz egiteko teknikak* ikastaroa eskainiko du Edurne Mendizabal berdintasun teknikariak Hernaniko (Gipuzkoa) emakumeen Jabetze Eskolan, urriaren erdialdetik aurrera.

Trebakuntza aukeratu duzue jabetzea lantzeko. Zergatik prestakuntzaren bidean?

Hiru ardatz ditugu: prestakuntza, munduko emakumeen egoera ezagutzeko eta emakumeen arteko sareak sortzea. Prestakuntza garrantzitsua iruditzen zaigu edukialki, jarrerak eta sentsibilizazioa

lantzeko. Baita emakumeen arteko sareak sortzeko eta beste errealitate batzuk ezagutzeko bide bat izan daitekeelako. Prestakuntzatik hastea beharrezkoa deritzogu beste ardatz horiek lantzen hasteko, beste ekimen batzuei hasiera emateko eta jendea ezagutzeko.

Zer aztertuko duzue zuek eskainiko duzun eskolan?

Helburu nagusia emakumeen parte-hartze publikoa bideratzea da; eta, noski, horretarako, jendaurrean hitz egitea ezinbestekoa da. Komunikazio ereduak ere aztertzen ditugu hartzailearen aldetik. Nola hitz egiten dugun emakumeok eta gizonak, nola jasotzen dugun emakumeok eta gizonak esaten dute-

na, publizitate ereduak... Oso praktikoa da, eta parte-hartzailea.

Badira ikerketak, eta argi dago gizonen ohitura gehiago dutela jendaurrean hitz egiteko, beti esparru publikoan egon direlako. Emakumeok, aldi, normalean jendaurrean gutxiago hitz egiten dugu, eta egiten dugunean mintzaldi motzagoak dira, zalantza gehiagorekin, ahalegina eskatuz... Ohitura hori bideratu nahian, landuko duguna da zergatik kostatzen zaigun kontratzea, zergatik lotsa hori; zailtasun horiek aztertu eta hitz egitera zein parte hartzera motibatuko da. **Esparru publikoan ez aritu izanaren ondorio aldira zailtasun horiek?**

Bai. Hasteko, lotsa da, kosta egiten

zaigu. Ez da ezer biologikoa, kulturak eman diguna baizik, normalean emakumea esparru pribatuan egon izan delako. Ari gara sartzen esparru publikoan, baina kosta egiten zaigu oraindik ere hainbat eremutan lasai hitz egitea, eta hori edozein hitzaldi edo forotan nabaria da. Ikaragarri aurreratutako dugu, baina oraindik esparru horretan eroso sentitzeko zeregina badugu.

Beraz, zailtasunak egungo gizarte ereduaren ondorio direla uste duzu.

Badira parte hartu izan duten emakume asko, eta Jabetze Eskolan saiatzen gara ekarpenak egin dituztenak ikusgarri egiten. Baina emakume gehienak esparru pribatuan garatu gara, eta baita gu hezi gaituzten emakumeak ere. Esan bezala, topatzen ditugun zailtasunen artean daude ohitura falta, zorrotz baloratzen dugula geure burua, komunikazio ereduaren oraindik patroiak daudela —eta publizitatea horren adierazle garbia da—. Baina gure mezua baiokorra eta motibatzailea izatea nahi

dugu, balorazio kontua ere badelako.

Hizkerasexistak, esaterako, noraino eragiten du jabetze prozesua oztopenen?

Hizkuntza berez adierazpide bat da, balio sistemaren isla da. Eta aldi berean, errealitatea birsortzen du. Gurpil bat da; batetik, egoeraren isla da hizkerasexista, baina, bestetik, errealitate hori berriz indartzen du. Jendarteasexista bada hizkeran adieraziko da, eta horrek indartu egiten du sexismoa. Horregatik da oso garrantzitsua hizkuntzaren erabilera. Eskola honetan bada saio bat gaia lantzeko. Kate bat da, eta katea moztzen asmatzen badugu, tresna bat gehiago litzateke sexismoari aurre egiteko.

Komunikazioaren gaia lantzeak, beraz, lagun dezake jabetzea lantzen?

Bai, jendaurrean hitz egitea eremu publikoan parte hartzeko beharrezko tresna da. Beraz, kosta egiten bazaigu gure parte hartzea mugatua izango da. Azken finean jabetzea hori da, ahal den esparru gehienetan norbera izatea.